

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4811

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena: «182/2011 Dekretua, uztailaren 26koa, zeinen bidez behin betiko onspena ematen baitzaio Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partzialari».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak ikusi dira ondoko dekretuan: 182/2011 Dekretua, uztailaren 26koa, zeinen bidez behin betiko onspena ematen baitzaio Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde-plan Partzialari (2011-09-8ko EHAA, 171. zk.). Eta jarraian zuzendu egiten dira hutsok:

Gaztelaniazko bertsioan, 2011/4347 (3/131) orrialdean, zein euskarazko bertsioan, 2011/4347 (128/3) orrialdean, 12. paragrafoko bigarren leerroaldean.

Honela dio:

«Hori betez, Ingurumen, Lurralde-plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta aldeztatik 2011ko aren (e)(a)n egindako Gobernu Kontseiluaren bilkuran eztabaidatu eta onetsita, honako hau:».

Baina honela esan behar du:

«Hori betez, Ingurumen, Lurralde-plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta aldeztatik 2011ko ekainaren 26an egindako Gobernu Kontseiluaren bilkuran eztabaidatu eta onetsita, honako hau:».

Euskarazko bertsioan, 2011/4347 (128/79) orrialdean, I. eranskineko 106. artikuluko 5. paragrafoko bigarren leerroaldean,

Honela dio:

«Hiriko jardueren eta erabileren barreiadura, bestalde, baliabideen nahiz denboraren kostu gero eta handiagoan oinarrituz euskarritzen da, eta horrek etorkizunean izango duen jarraipena, berriz, baliabide horiek mugatzearen arabera da».

Baina honela esan behar du:

«Hiriko jardueren eta erabileren barreiadura baliabideen nahiz denboraren kostu gero eta handiagoan oinarrituz euskarritzen da».

Euskarazko bertsioan, 2011/4347 (128/79) orrialdean, I. eranskineko 107 artikuluko 2. paragrafoan,

Honela dio:

«Kalkuluko metodo horrek Eskualde Egituran azken urtekotan jarduera ekonomikoetara bideraturiko lurzoru-kontsumoaren joera eta kuantifikazioa hartzen du erreferentziatzat. Joera aldatzen duen irizpidea, izan ere, erabilera mistoen garapen-proposamena jasotzea da (hau da, erabilera tertziarioa eta egoitzakoa batera)»

Baina honela esan behar du:

«Kalkuluko metodo horrek Eskualde Egituran azken urtekotan jarduera ekonomikoetara bideraturiko lurzoru-kontsumoaren joera eta kuantifikazioa hartzen du erreferentziatzat».